

NIRE HERRIA

Maialen Akizu Bidegain, 13 urte

Urretxu

Patuak ni hemen jaiotzea erabaki zuen.
Euskalduna sentiaraztea erabaki zuen.
Harro sentitzea herriagatik erabaki zuen.
Baita negar eginaraztea ere.

Azken batean,
Dena erabakitzen digu patuak.

Nolakoa da zure herria? –galdetzen didate jakin
minez kanpoko lagunek,
hain pozik ikustean.
Eta amesti kontatzen diet:

Nire herria udaberrian berdea da.
Neguan zuria.
Udan urdin sargori bilakatzen da.
Eta udazkenean, berriz, gorri, haizeti.
Koloretsua da nire herria,
baina beltza gehiegi ikusten da.

Nire herriak indarra omen du.
Ideiak garbi omen ditugu.
Batuta omen gaude.
Baina besteen menpe bizi gara.

Nire herrikoak baserritarrak garela esaten da.
Europako hizkuntza zaharrena dugula harro esaten
dugu.
Gure kultura garbi diogu.
Baina

Bertako usaina,
Bertako jana,
Bertako arnasa.
Nahiz eta bila aritu
Badakit ezin dela aurkitu,
Nire herria zoragarria baita.

Baina nik ez dut nire herria maite
magikoa delako,
zoragarria delako,
koloretsuena delako,
Nirea delako baizik.